

«Erabakiak hartu beharko dira, baina ezin dira hartu arrapaladan»

Bingen Zupiria • Eusko Jaurlaritzako bozeramailea eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua

Egoeraren «konplexutasunaz» mintzo da Zupiria «erantzun errazak» alboratzeko, eta ez du uste lehendakartzaren egituraketa berriak kalte egingo dienik berdintasun politikei.



Jon O. Urain Gasteiz

«Ikastaldi prozesu batean» dago Bingen Zupiria (Hernani, Gipuzkoa, 1961): bozeramaile lan berriari «neurria hartzen». Lau urte eman ditu Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu, eta, zeregin horrekin jarraitzeaz gain, Jaurlaritzari ahotsa jarriko dio aurreantzean: «Jaurlaritzaren ardura nagusia da bere eskumena diren arloen kudeaketa. Hori adostuta dago, eta asko mugatzen eta arautzen du bozeramailearen lana».

Lehen agerraldian, greba batez hitz egitea egokitu zitzaizun.

Gobernuaren sorrerak bat egin du egutegiz kurtsuaren hasierarekin, eta hori kudeatzea egokitu zaigu. Huelgara deitu zuenak bazekien sortu berri zen gobernu baten aurkako deialdi bat zela. Huelga egun hori baino askoz gehiago da hezkuntza, eta Jaurlaritzari erantzukizun handia dagokigu, baina egoera potolo baten aurrean gaude, eta denon erantzukizuna beharko da honi aurre egiteko.

Batasun bat dago hezkuntzan: sindikatu guztiek eskakizun eta protesta bateratuak egin dituzte. Horri buruzko analisirik egin al du Jaurlaritzak?

Ez. Jaurlaritzan egin dugun azterketa da martxoetik eskolara joan ez diren neska-mutil askori zor diela hezkuntza bermatzea. Hezkuntza komunitate osoak bat egiten du eskubide horrek modu presentzialean bermatua izan behar duela; gure gogoetak horri buruzkoak dira. Gure autonomia erkidegoan, hezkuntza oso mundu konplexua da. Konplexutasun hori da Jaurlaritza aztertzen ari dena, eta konplexutasun horren arlo guztiak landuz baka-rrik atera gaitezke hemendik. Arazo konplexuek ez dute erantzun errazik.

Hainbat irakasleek diote baka-rrik sentitu direla ikasturte hasieran; irizpide argirik gabe.

Argi dago herritarrok erantzukizunaren parte handi bat uzten dugula gobernuaren esku. Seguruenera, egoera konplikatuak direnean, aginteak ez ditu aseptzen dauden eskari guztiak. Baina nabari dut gizon-emakume asko daudela, batzuk beldurtuta, beste batzuk haserre... Krisi emozional bat ere badaukagu, eta hori ere kudeatu behar da. Gure erkidegoan erresistentzia handiak egon dira lanera bueltatzeko, eskolara bueltatzeko, eta argumentua beti izan da aurrena segurtasuna bermatu behar zela.

Baina segurtasuna egunez egun eta tokiz toki bermatu beharko dugu.

Ikasturtea hasi aurretik, mila irakasleren kontratazioa iragarri zuen Jaurilaritzak. Kurtsoa hasita, kopuru hori birplanteatu du?

Errazena litzateke esatea baietz, baina ez litzateke egia izango. Egia konplexua da. Herri eta gizarte moduan dugun erronka handiena ez da nola hasten den kurtsoa, baizik eta nola pasatzen dugun eta nola iristen garen amaierara, jakinda birus batekin batera bizitzeko dugarik eta birus hori oso kutsakorra dela. Konbentzitu gaudu hezkuntzak eta irakaskuntza prozesuak presentziala izan behar duela, eta denoi eskatzen digu ahalegin izugarri bat; Jaurilaritzari ere bai.

Zer ahalegin?

Eusko Jaurilaritzari eskatuko diko ikastetxez ikastetxe gogoeta partekatutako bat egitea. Joan beharko dugu egunean-egunean erabakiak hartzen; batzuek zerikusia izango dute ikasgelak itxtearekin edo zabaltzearekin, haur eta familia batzuk etxean egotera behartzearekin... Ikusiko dugu. Sortuko dira espazio eta pertsona premiak, eta erabakiak hartu beharko dira, baina ezin dira hartu arrapaladan eta modu orokorrean; pausoz pauso, pazientziarekin eta komunitatearekin batera lan eginez hartu behar dira.

Uste baino lehenago heldu da bigarren olatua. Azkarregi sozializatu gara lehengo neurrian?

Kosta egin zaigu denoi sinistea zeren aurrean gauden. Ez genuen onartu nahi izan birus hau segur aski denbora askoan bizitzeko etorri dela eta horrek behartuko gaituela beste era batera bizitzera. Hori ikasi egin beharko dugu. **PCRen positibitate tasari begiratuta, behearantz doa, baina ospitaleak betetzen ari dira. Zer puntutan gaudu?**

Osasun arloko lankideei entzuten diegana da martxoan eta apirilean baino hobeto gaudela. Nekane Murgari entzun nion gertatzen ari zirela kutsatzeek hildakoak ekarriko zituztela; oso gaizki hartu zituzten batzuek, baina hiri gertatzen ari da. Joan den astean irakurri ditut Europa erdialdeko epidemiologioko batzuk esanez udazkena oso gogorra izango dela. Ez dakit; susmoa daukat hau ekonomia bezalakoa dela: gertatutakoa aztertzen jakingo dugu, baina zer datorkigun aztertzea askoz zailagoa da.

Jaurilaritza neurri murriztaileak hartzea aztertzen ari da?

Une honetan, Jaurilaritzak uste du azkeneko hartu ziren neurriekin egoera hau kudeatu daitekeela. Baina lehenasunak finantza behar ditugu; erabakiak hartzen joan beharko dugu pixkanaka. Argi daukagu jardun ekonomikoa mantentzea lehenasuna dela, hezkuntza presen-



Huelgara deitu zuenak bazekien gobernu sortu berri baten aurkakoa zela. Egundak baino gehiago da hezkuntza...

«Emakunderi buruz hartutako erabakia, beste zenbait bezala, oso pentsatua dauka lehenakariak»

«Autogobernu handiagora lortzeko bide bakarra elkarriketa, negoziatzea eta akordioa da»

tziala lehenasuna dela... Ez dago erantzun bat denerako. Lasaitasunez, zuhurtziaz eta pausoz pauso hartu behar dira erabakiak, pentsatuz denbora luzerako erabakiak hartzen ari garela. **Emakunderen kokapen organiko berriak kritikak eragin ditu. Zergatik mugimendu hori?**

Ardanza lehenakariarekin lan egin nuen 1989tik 1998ra. Iritsi nintzenean, Lehendakariaren zeuden Berdintasun Zuzendari-tza, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza, Droga Menpekotasunen Aurkako Idazkaritza eta Europa 93 proiektuari lotutako idazkaritza bat. Ardanzak ikusi zuen gizarte hark zituen lau arazo potolo zirela, eraman zituen urte batzuetarako Lehendakari-tzara, eta gero horiek joan dira arloz arlo beste era batera kudeatuak izaten. Urteotan, Lehendakari-tzan izan dira lehenakariak arreta bereziz zaindu dituen arlo batzuk. Orain, lehenakariak

erabaki du beste era batera antolatzea, baina ez dut uste hizkuntza politika lehenakariaren ez egoteagatik arreta gutxiago jarri ziondik. Urteotan aldaketa potolo bat gertatu da Jaurilaritzan berdintasunaren arloan. Berdintasunaren aldeko politikak guztiz txertatuta daude sail guztietan: sail bakoitzak dauka berdintasun unitate bat, eta iaz

Ogasun Sailak berdintasunaren ikuspegitik eraiki zituen aurrekontuak. Gaur, berdintasunaren aldeko politikak txertatuta daude modu transbertsal batean Jaurilaritza osoan.

Degradazio bat dela salatu dute Emakunderi buru ohi batzuek.

Jaurilaritzaren eta lehenakariaren helburua ez da hori. Praktikan, neurri eta erabaki asko hartu dira urteotan hori horrela ez dela izango sinisteko.

Kritikak entzunda, Jaurilaritzak pentsatu al du atzera egitea?

Jakitun nago lehenakariak denbora asko eskaini diola gobernu berria nola antolatu pentsatzeari. Eta Emakunderi buruz hartutako erabakia, beste zenbait bezala, oso pentsatua du.

Bake eta Bizikidetzak idazkaritza ere lehenakariatzatik ateratu da. Zer gogoeta dago aldaketaren atzetan?

Euskal gizartearen elkarbizitzak dauzkana arazoak ez direla duela zortzi urte zeudenak; gauza asko gertatu dira zorienez, pauso asko eman dira, eta orain-txe pauso asko ematen ari dira. Gainera, bizikidetzak badu beste tresna bat, Gogora, agintaldi honetan esanahi berezia hartuko duena.

Bozen aurretik, «euskaraz hitz egingo duen» Jaurilaritza bat eskatu zuten 400 kazetarik baino gehiagok. Zer iruditu zitzaizun? Badakit zeintzuk diren lehenakariaren hizkuntza ohiturak eta euskararen normaltasunaren inguruan dauzkana kezak. Lehenakariak ez zuen inoren eskaririk behar egin behar zuena egiteko; bere ekintzekin demostratu du zer zeukan buruan. Egia da 400 pertsonak sinatu zutela, baina izen askoren falta sumatu dut; batzuek euskaraz egiten dute lan, eta ez dut ikusi gaztelaniazko hedabideetan lan egiten duen inor, salbuespen batekin.

Zein da horren ondorioa?

Gure gizartearen batzuk elebidunak gara, baina gehienak ez. Hizkuntzaren inguruko kezak eta konpromisoak oso diferenteak dira, eta ez dakit hori beti kontuan hartzen dugun.

Hau izango al da estatutu berriaren legealdia?

Lehendakariak nahi luke horrela izatea. Urkulluk eta EAJk argi adierazia dute ez dutela bide hau bakarrik egin nahi, adostasun bat lortu nahi dutela esparru ideologiko ezberdinak barnean hartuko dituen. Adostasun hori lortu behar da legebiltzarrean, testu bat artikulatu, Madrilerara joan, Madrilekin negoziatu, kontsultatu egin... Horrek denbora eta zailtasunak izango ditu. Gober-

nuak hartu du konpromisoa prozesu hori bultzatze giteko.

Legebiltzarrean akordioak ez badago, Jaurilaritzak har dezake ekimena?

Jaurilaritza osatzen duten alderdiek hartu dute konpromisoa estatutua betetzeko eta estatutu berri bat edo horren moldaketa egiteko. Ez da beste biderik egon, eta gaur-gaurkoz ez dago beste biderik autogobernu handiagora lortzeko: elkarriketa, negoziatzea eta akordioa da bide bakarra. Bide horretatik kanpo egon dira proklamak eta aldarrik 40 urtez, eta bide horretatik gauza gutxiago etorri da. Seguru nago negoziatzearen eta akordioaren bitartez etorri beharrekoa etorriko dela. Noiz? Ikusiko dugu.

«Koalizioan, hizkuntz eskakizunak ez dira arazo bat izan»

J. O. Urain Gastelaz

Zer jauzi egin beharko luke aurrean Euskaraldiak?

Importantea da argi gurea. Konforme nengoke duela bi urteko ondorioak aterako eta bermatuko bagenitu: Euskaraldia positiboa dela, komunitate sentimendua indartzen duela, eta laguntzen digula modu natural batean, leloak dioen bezala, gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin euskaraz egiten.

Zer giro sumatzen duzu?

Askok falta da. Zailtasuna da egoera oso berezia dela; emotibitatearen aldetik arrakala batzuk dauka, pertsona asko daude beldurtuta edo haserre, eta giro horretan sortuko da Euskaraldia; baina aukera bai ere bada, komunitate baten zatitzaileak den proiektu baten inguruan ilusioa pizteko.

Hizkuntz eskakizunen dekratuak noizko aurrekustuen duzue?

La bukatuta daukagu administrazioetan euskararen eskakizunak izan behar duenaren inguruko gogoeta, eta uste dut bi hilabete baino lehenago zerbaitek aurkezteko moduan izango garela.

Gobernukideak bat datoz?

Lau urtean ez dugu eztabaidarik izan honen inguruan. Euskararen agenda estrategikoaren inguruan hartu ditugun erabakiak adostasun osoarekin ateratu ditugu aurretik. Ez da izan arazo bat.

Hedabideen finantzaketan, hiztarmenaren ereduak?

Badugu aukera eta denbora elkarrekin gai honi buruz gogoeta egiteko euskarazko hedabideen eta Jaurilaritzako ordezkariek. Badauzkagu etxeko lan batzuk egiteko: horiei ekin behar diegu.

Zer etxeko lan?

Euskaldun guztiok ez gara linea ideologiko jakin batekoak: aniztasuna dago euskaldunon artean. Hedabide bakoitzak bere erabaki editorialak hartzen ditu; hedabide hori osatzen edo zuzentzen dutenak jakingo dute nora eraman nahi duten hedabide hori, norengana iritsi nahi duten. Benetan interesatzen bazaizkigu audientziak, uste dut gogoeta hori egin beharra dagoela. Ni ez naiz ez ezker abertzalekoa, ez EH Bildukoa, eta zenbaitetan herritar moduan irakurtzen ditudan gauza askok deserosotasuna sortzen didate; badirudi denok berdin pentsatu behar dugula euskaraz irakurtzen dugulako, eta ez da horrela.

EH Bilduren alde lerratuta?

Joera politiko jakin batzuen alde. Otsailetik uztaierara mobida handi bat egon da; ez dut auzitan jartzen zilegitasuna, baina iruditzen zait ahalegin oso indartsu bat egon dela ordezkaritza politikoak aldatzeko. Lehia horretan, indar asko ikusi ditut batuta EAJk ordezkatzen zuten aukeraren aurka. Protagonista asko egon dira, eta euskarazko komunikazioak ere zere- san handia izan du.